

KIROL EGOKITUAREN GIPUZKOAKO FEDERAZIOA

FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE DEPORTE ADAPTADO

GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO EBAZTEKO ARAUTEGIA

REGLAMENTO DE RESOLUCIÓN EXTRAJUDICIAL DE CONFLICTOS

1. artikulua.- Helburua

Arautegi honen helburua gatazkak judizioz kanpo ebazteko Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioaren estatutuetan aurreikusitakoa garatzea da.

Gatazkak judizioz kanpo ebaztea, orokorrean artekaritza eta adiskidetzea arautzen dituen indarreko legeria publiko berezian, eta artekaritzari buruzko legerian nahiz kirol eremuan gatazkak judizioz kanpo ebazteko erabiltzen diren beste formula batzuetan xedatuta dago.

Marko juridiko orokorraren eta Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioaren estatutuen osagarri modura, honako arautegi honek, zehazki, hurrengoan artean planteatzen diren gatazkak edo aldeak artekaritza bidez edo judizioz kanpoko ebazteko araubidea erregulatzen du; hain zuzen ere:

- Federazioaren beraren eta bertako kide diren pertsona federatuen artean.

- Federatutako pertsonak beraien artean eta/edo, federatuak izan edo izan ez, Federaziokoak diren beste pertsona batzuen artean.

- Federazioaren, bertako federatuen nahiz Federazioko kide diren beste pertsona batzuen eta harakoarekin zerikusirik ez duen beste edozein pertsonaren artean, azken hau berariaz horrelakoaren mende jartzen baldin bada.

2. artikulua

Administrazioak Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioari delegatutako eginkizun publikoak burutzearekin zerikusia duten gaiak edota berariaz eta legez artekaritzaren mende egotetik kanpo utzitako gaiak izan ezik, gainerako guztiak ebatzi ahal izango dira bide hau

Artículo 1.- Objeto

El presente Reglamento tiene por objeto desarrollar lo previsto en los Estatutos de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado en materia de resolución extrajudicial de conflictos.

La resolución extrajudicial de conflictos queda sujeta a lo regulado en la legislación pública específica vigente reguladora del arbitraje y conciliación en general así como a lo dispuesto en la legislación del arbitraje y otras fórmulas de resolución extrajudicial de conflictos en el ámbito del deporte.

Como complemento del marco jurídico general y de los Estatutos de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, el presente Reglamento regula, en concreto, el régimen de arbitraje o resolución extrajudicial de los conflictos o diferencias que puedan plantearse:

- Entre la propia Federación con sus federadas, federados u otras personas miembros de la misma.

- Entre las personas federadas entre sí y/o con otras personas que formen parte de la Federación, estén o no federadas.

- Entre la Federación, sus federados y federadas u otras personas miembros de la Federación con cualquier otra persona ajena a la misma, en caso de expreso sometimiento por parte de esta tercera persona.

Artículo 2

Salvo las cuestiones relacionadas con el ejercicio de funciones públicas delegadas por la Administración a la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado y las materias legal y expresamente excluidas de sometimiento a arbitraje, todas las demás cuestiones podrán ser objeto de resolución

erabiliz.

3. artikulua.- Subjektuak

Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioak nahiz bertako federatuek, federazioko kide izaera duten pertsonak eta hari atxikitako kirol talde eta elkarteek, beren buruak borondate osoz honako arautegi honek erregulatu duen artekaritzaren mende, eta, ondorioz, Kirol Artekaritzarako Euskal Auzitegiaren eta bere arauen mende jartzen dituzte.

4. artikulua.- Prozedura

4.1.- Federazio-lizentzia duten pertsonak gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mendeko jartzen direla jotzen da, lehen aldiz lizentzia ematen den datatik zenbatuko den hilabeteko epearen barruan edota, hilabete igaro ostean honako arautegiaren argitalpen unetik, beti ere Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioan beharrezko ukapen-idazkia aurkeztuz harakoari berariaz uko egiten ez badiote.

4.2.- Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioko kide izan eta federazio-lizentziarik ez duten gainerako pertsonak (Lehendakaria eta Batzako kideak; zuzendariak eta teknikoak; etab.) ere gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mendeko jartzen direla jotzen da, egoera hori lortzen duten unetik edota honako arautegiaren argitalpen unetik hilabeteko epea igaro ondoren, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioan beharrezko ukapen-idazkia aurkeztuz harakoari berariaz uko egiten ez badiote.

4.3.- Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioan inskribatutako kirol talde eta elkarteek gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mendeko jartzen direla jotzen da, federazioan izena ematen duten datatik zenbatuko den hilabeteko epearen barruan edota, hilabete igaro ostean honako arautegiaren argitalpen unetik, beti ere Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioan beharrezko ukapen-idazkia

por esta vía.

Artículo 3.- Sujetos

La Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, así como sus federados y federadas, las personas que ostentan la condición de miembros de la federación y los clubes y agrupaciones deportivas adscritas a la misma, quedan sometidas voluntariamente al arbitraje que se regula en el presente reglamento y, en consecuencia, al Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo y sus normas.

Artículo 4.- Procedimiento

4.1.- Se presume que las personas titulares de licencia federativa quedan sometidas al sistema de resolución extrajudicial de conflictos salvo que en el plazo de un mes, a contar desde la fecha en que se le expida la licencia por primera vez, o una vez transcurrido el plazo de un mes desde la publicación del presente reglamento, no han renunciado expresamente al mismo, mediante la presentación del correspondiente escrito de renuncia en la Federación Guipuzcoana de deporte Adaptado.

4.2.- Las restantes personas, miembros de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado que no dispongan de licencia federativa (Presidente y miembros de la Junta Directiva; directores y técnicos; etc.), también se presumirá que quedan sometidas al sistema de resolución extrajudicial de conflictos salvo que en el plazo de un mes, a contar desde la fecha en que adquieran tal condición, o una vez transcurra el plazo de un mes desde la publicación del presente reglamento no han renunciado expresamente al mismo, mediante la presentación del correspondiente escrito de renuncia en la Federación.

4.3.- Los clubes y agrupaciones deportivas inscritas en la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado quedan sometidos al sistema de resolución extrajudicial de conflictos salvo que en el plazo de un mes, a contar desde la fecha en que se inscriban en la federación, o una vez transcurra el plazo de un mes desde la publicación del presente reglamento, no han renunciado expresamente al mismo, mediante la presentación del correspondiente escrito de

aurkeztuz harakoari berariaz uko egiten ez badiote.

4.4.- Ukapen-idazkian hurrengo datu hauek jakinarazi beharko dira:

-Ukapena aurkeztzen duen pertsonaren edo erakundearen filiazio datuak (izena eta bi deitura edota sozietatearen izena, helbidea eta IFZ).

-Behar izanez gero, lizentziaren zenbakia.

Ukapena Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioak jasoko du federazioak berak berariaz horretarako bakarrik prestatutako liburu batean.

5. artikulua

5.1.- Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioak, ukapen egintzaren berri bakarrik hurrengo inguruabarren bat gertatzen denean emango dio beste norbaiti.

-Beste norbait horrek, lizentziaren titularrarekin edota Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioko kidearekin alderen edo gatazkaren bat izan eta honako arautegi honetan araupetutako gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mendeko jarri nahi izan eta informazioa eskatzen duenean.

-Lizentziaren titularrak edota Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioko kideak egindako ukapenaren ezeztapen orokorrik ez denean.

5.2.- Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioak eskabidea jasotzen duen egunetik zazpi (7) eguneko epean erantzunik ematen ez badu, Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioko lizentziaren titularrak edo kideak artekaritzaren mendean egoteari uko egin diola adieraziko du.

5.3.- Beste norbait horrek informazioa jasotzeko egiten duen eskabidea nahiz Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioaren erantzuna idatziz egin beharko dira.

6. artikulua.- Hasieran uko egin ondoren artekaritzaren mende jartzeko prozedura

renuncia en la Federación.

4.4.- El escrito de renuncia deberá constar de los siguientes datos:

- Datos de filiación de la persona o entidad que presenta la renuncia (nombre y apellidos o razón social, domicilio y NIF).

- Número de licencia, cuando proceda.

La renuncia será anotada por la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado en un libro que exclusivamente para este fin habilitará expresamente la propia Federación.

Artículo 5

5.1.- La Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado únicamente informará a terceras personas sobre el acto de renuncia cuando concurren las siguientes circunstancias:

- Cuando esa tercera persona solicite la información en base a que mantiene una diferencia o conflicto con el titular de la licencia o miembro de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado y desea someterse al sistema de resolución extrajudicial de conflictos regulado en el presente Reglamento.

- Cuando no exista revocación general de la renuncia por parte del titular de la licencia o miembro de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado.

5.2.- La falta de respuesta por parte de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado en el plazo de siete (7) días desde la recepción de la solicitud, supondrá que existe renuncia al sometimiento a arbitraje por parte de la persona titular de la licencia o miembro de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado.

5.3.- Tanto la solicitud de información por parte de terceras personas como la respuesta por parte de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, deberán realizarse por escrito.

Artículo 6.- Procedimiento para incorporarse al arbitraje tras una renuncia inicial

6.1.- Hasiara batean artekaritzaren menpe egoteari berariazko ukokoa egin dioten Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioko federatuak nahiz gainerako kideak, geroago gatazkak ebazteko sistema horren menpeko jarri nahi izanez gero, dela izaera orokorrez dela gatazka edo alde zehatzaren konponbiderako, eskabidea egin beharko dute honako arautegi honen eranskinean adierazitako terminoetan mende jartzeko konpromisoa sinatuz.

6.2.- Artekaritza bidez gatazkak judizioz kanpo ebazteko sisteman sartzeko eskabideak balioa izan dezan pertsona interesatuak sinatutako idazki bidez egin beharko da.

6.3.- Eskabide hori Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioan edota Kirol Artekaritzarako Euskal Epaitegiaren aurrean aurkeztu behar da.

6.4.- Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioak hamabost (15) eguneko epearen barruan ebatzi beharko du barne sartzeko eskabidea, eta pertsona interesatuari horretan hartutako ebazpena jakinaraziko dio.

7. artikulua

Gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mende era orokorrean jartzeko eskabidea denean, edozein unetan egin ahal izango da.

Federazioak planteatutako eskabidearen aldeko ebazpena ematen duenean, hark ofizioz baja emango dio, honako arautegi honetan aurreikusien arabera, egun batean egindako ukoari.

8. artikulua

Gatazka edo alde zehatz baterako artekaritzaren mende jartzeko eskabidea denean, interesa duen pertsonak edo erakundeak Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioaren aurrean edota Kirol Artekaritzarako Euskal Epaitegiaren aurrean aurkeztuko du eskabidea, interesatutako beste norbaitek edota

6.1.- Las y los federados así como el resto de miembros de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado que, después de una inicial renuncia expresa al sometimiento a arbitraje, deseen a posteriori acogerse a dicho sistema de resolución de conflictos, bien con carácter general o bien para la resolución de un conflicto o diferencia concreta, deberán solicitarlo suscribiendo un compromiso de sometimiento en los términos que se indican en el anexo al presente Reglamento.

6.2.- Para que la solicitud de incorporación al sistema de resolución extrajudicial de conflictos mediante arbitraje tenga validez deberá efectuarse a través de escrito que deberá estar firmado por la persona interesada.

6.3.- Dicha solicitud deberá ser presentada en la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado o ante el Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo.

6.4.- La Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado deberá resolver en un plazo de quince (15) días la solicitud de incorporación, comunicando por escrito a la persona interesada la resolución adoptada al respecto.

Artículo 7

Cuando se tratase de una solicitud de sometimiento general al sistema de resolución extrajudicial de conflictos, la misma podrá presentarse en cualquier momento.

En el caso de que la resolución por parte de la Federación sea favorable a la petición planteada, la misma, procederá de oficio a dar de baja la anotación de renuncia efectuada en su día, en conformidad con lo previsto en el presente reglamento.

Artículo 8

Cuando se tratase de una solicitud de sometimiento al arbitraje para la resolución de un conflicto o diferencia en concreto, la persona o entidad interesada presentará su solicitud ante la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, o bien ante el Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo, dentro de los quince días siguientes a aquél en que haya

norbait horrek eskaturik Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioak horretarako eskabidea egin dion egunaren ondoko hamabost egunen barruan.

9. artikulua


Artekaritza eta, orokorrean, gatazkak judizioz kanpo ebazteko ardura ematen zaion organoa Euskal Kirol Federazioen Batasunak osatua den Kirol Artekaritzarako Euskal Auzitegia izango da.

10. artikulua

Artekaritza aplikatzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, gatazkak judizioz kanpo ebazteko beste edozein sistemaren prozedura Kirol Artekaritzarako Euskal Auzitegiak berak aurreikusitakoa da.

11. artikulua

Kirol Artekaritzako Euskal Auzitegiaren laudoa, borondatez nahiz behartuta, betetzea Auzitegi berberaren Kirol Artekaritza-Kodean berariaz aurreikusitako eran egingo da.



Sandra Peña
Idazkaria/Secretaria

sido requerida para ello por la o el tercero interesado, o por la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado a instancia de esa tercera persona.

Artículo 9


El órgano al que se encomienda el arbitraje y, en general, la resolución extrajudicial de conflictos, es el Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo constituido por la Unión de Federaciones Deportivas Vascas.

Artículo 10

El procedimiento de aplicación del arbitraje, y, en su caso, de cualquier otro sistema de resolución extrajudicial de conflictos, es el previsto por el propio Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo.

Artículo 11

La ejecución, voluntario o forzosa, de los laudos del Tribunal Vasco de Arbitraje Deportivo se llevará a término en la forma prevista expresamente en el Código de Arbitraje Deportivo del propio Tribunal.



Mikel Izagirre
Lehendakaria/Presidente

ERANSKINA / ANEXO

**A) PERTSONA FEDERATUENTZAKO EREDUA.
A) MODELO PARA PERSONAS FEDERADAS**

Izena-deiturak/ Nombre y apellidos:

Helbidea/ Dirección:

NANaren zk./ DNI nº:.....Lizentzia zk./nº de licencia:

<p>Goian aipatua izan eta Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioaren lizentzia duenak idazki honen bidez adierazten du Federazioak ezarri eta erregulatutako gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mendeko jartzen dela berariaz, sinatzen duenaren eta Federazioaren artean eta sinatzen duenaren eta beste federatu batzuen edota Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioko kideen artean sor daitezkeen aldeak edo gatazkak ebazteko.</p>	<p>La persona arriba mencionada con licencia de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, por medio del presente escrito manifiesta que se somete expresamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos establecido y regulado por la Federación, para la resolución de aquellas diferencias o conflictos que pueda surgir entre la Federación y quien suscribe o entre quien suscribe y otras personas federadas o miembros de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado.</p>
---	---

.....n, 200.....koren(e)an
Lugar año mes día

Sin/Fdo.

O.E./V.B.

Sin./Fdo.

.....
Lehendakaritza/Presidencia

.....
Idazkaritza/Secretaría

ERANSKINA / ANEXO

**B) FEDERAZIOKO KIDE DIREN PERTSONENTZAKO EREDUA.
B) MODELO PARA PERSONAS QUE OSTENTAN LA CONDICIÓN DE MIEMBRO DE LA FEDERACIÓN.**

Izena-deiturak/ Nombre y apellidos:

Helbidea/ Dirección:

NANaren zk./ DNI nº:.....

<p>Goian aipatua izan eta Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioko kide direnak idazki honen bidez adierazten du Federazioak ezarri eta erregulatutako gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mendeko jartzen dela berariaz, sinatzen duenaren eta Federazioaren artean eta sinatzen duenaren eta beste federatu batzuen edota Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioko kideen artean sor daitezkeen aldeak edo gatazkak ebazteko.</p>	<p>La persona arriba mencionada en su condición de miembro de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, por medio del presente escrito manifiesta que se somete expresamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos establecido y regulado por la Federación, para la resolución de aquellas diferencias o conflictos que pueda surgir entre la Federación y quien suscribe o entre quien suscribe y otras personas federadas o miembros de la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado.</p>
---	---

.....n, 200.....koren(e)an
Lugar año mes día

Sin/Fdo.

O.E./V.B

Sin./Fdo.

.....
Lehendakaritza/Presidencia

.....
Idazkaritza/Secretaría

ERANSKINA / ANEXO

**C) KIROL TALDE ETA ELKARTEENTZAKO EREDUA.
C) MODELO PARA CLUBES Y AGRUPACIONES DEPORTIVAS**

Izena-deiturak/ Nombre y apellidos:

Helbidea/ Dirección:

NANaren zk./ DNI nº:.....Lizentzia zk./nº de licencia:

Goian aipatua izan denak, Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioan atxekitako taldearen edo elkartearen izenenean jardunez honako idazki honen bidez adierazten du Federazioak ezarri eta erregulatutako gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemaren mendeko jartzen dela berariaz, sinatzen duenaren eta Federazioaren artean edota sinatzen duenaren eta kirol talde eta elkarteen, pertsona federatuen nahiz Federazioko kide diren beste pertsona batzuen artean sor daitezzen aldeak edo gatazkak ebazteko.	La persona arriba mencionada en representación del club o agrupación adscrita a la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado, por medio del presente escrito manifiesta que se somete expresamente al sistema de resolución extrajudicial de conflictos establecido y regulado por la Federación, para la resolución de aquellas diferencias o conflictos que pueda surgir entre la Federación y quién suscribe o entre quien suscribe y clubes, agrupaciones deportivas, personas federadas, u otras personas miembros de la Federación.
--	--

.....n, 200.....koren(e)an
Lugar año mes día

Sin/Fdo.

O.E./V.B

Sin./Fdo.

.....
Lehendakaritza/Presidencia

.....
Idazkaritza/Secretaría